

## Sabotajeak

### erreakzioak

**Iñaki Anasagasti** • EAJko diputatua



#### «Eraso hauekin kalte izugarria egiten zaio bake prozesuari»

► «Nolabaiteko etsipen sentsazioa dugu, biktimari egiten zaion kalteaz aparte, bake prozesuari kalte izugarria egiten zaiolako», adierazi zion atzo Iñaki Anasagastik Efe agentziari.

EAJko diputatuaren ustez, kale istiluek eta sabotajeek egiaztatzen dute badagoela «negoziatorik nahi ez duen sektore gogor bat». Sektore hori, Anasagastirez ustez, «jendearen bizitza aztoratzen eta oraindik hasi ez den prozesuaren kontra eraso egiten ari da».

**Lepoldo Barreda** • PPko parlamentarioa

#### «Eusko Jaurlaritzaren eraginkortasun politikorik ezak bultzatzen ditu horrelako ekintzak»

► Lepoldo Barreda PPko parlamentarioak Eusko Jaurlaritzaren «eraginkortasun politikorik ezari» egotzi zion atzo azkeneko sabotajeen ardura. Ertzaintzari zorionak eman zizkion Durangoko zinegotziaren kotxe azpian zegoen lehergailua indargabetzeagatik, eta kritika guztiak arduradun politikoen kontra bideratu zituen. «Ertzainak, kale borrokari aurre egiteko erabaki operatiboak hartzeko ardura dutenen gainetik daude», adierazi zuen Barredak.

**Manuel Maria Zorrilla** • EAeko Auzitegi Nagusiko lehendakaria

#### «Bake prozesua laguntzeko borondaterik ezaren isla»

► «Tolosa eta Eibarko epaitegiek jasan dituzten erasoak interpretazio bakarra dute. Erasook gizalegearen kontrako jarduerak izateaz gain, bake prozesua laguntzeko erabateko borondate gabezia erakusten dute. Mota horretako erasoak osagarri erabat hondatzailea dira bake prozesuan itxaropena dutenentzat. Ikusten dugunez, aukera hori hondatu egin daiteke horrelako esku-hartzeekin, behin eta berriz gertatzen dira, ez dira saihesten, eta ondorio bakarra dute: gizartearen egoneza eta etsipena».

**Abel Muniategi** • Justizia sailburuordea

#### «Hasitako bake prozesua normaltasunez garatzea saihesten dute»

► «Erasoek instituzioekiko errespetu gutxi erakusten dute, eta, era berean, Euskadin hasi berria den bake prozesua normaltasunez garatzea saihesten dute. Judikatura Judikatura da, botere publiko bat da, legegilea eta exekutiboa diren moduan. Zalantzarik gabe, herrian sustraitua dago, eta estatuaren botere bat da, eta erasoak ezin dira inolaz onetsi. Oinarri sendoko instituzioak dira, demokratikoak, eta, ondorioz, zuzenbideko estatu demokratiko baten ezin da funtzionatu instituzioekiko gutxieneko errespetu hori gabe».

**Javier Madrazo** • IU-EB

#### «ETAren su-etenak zabalduko itxaropen bidean atzerapausoak dira eraso hauek»

► «Euskal Herritarrok indarkeriaren desagerpena bultzatu beharko luke, edo bestela gaitzespen garbia adierazi. Bada garaia EHk onar dezan indarkeria eta erasoak dauden bitartean ezinezkoa dela bakegintzara eramango gaituen elkarrizketa politikoa egotea. Kale borroka oinarritzko eskubideen urraketa garbia da, eta ETAren su-etenak zabalduko itxaropen bidean atzerapausoak dira erasoak».

**BAK**

#### «Indarkeria behin eta berriz erabilita ere, gizarteak ez du etsiko»

► «Indarkeriaren erabilera behin eta berriz egitearren, gizarteak ez du etsiko, intolerantzia eta fanatismoaren iturrietatik edaten dutenentzat izan ezik, ekintza mota horiek justifikaziorik ez dutelako. Horregatik, indarkeria mota guztiak bertan behera uzteko deia egiten dugu, zuzenbide estatuak eskaintzen dituen bidez baliatzea arazoak konpontzeko ir-